

Arabako Pentsiodunen Mugimendua, 2020ko maiatzaren 1ean

2018. eta 2019. urteetan, ez genuen jarrera bateraturik planteatu. Pertsona bakoitzak deialdi batera edo bestera joatea aukeratu zuen, edo bakar batera ere ez, bere analisiaren eta lehentasunen arabera. Baina aurtengo Maiatzaren Lehena aparta da. COVID-19ren pandemiak gure etxeetan konfinatu gaitu, eta errealitate batzuen berri ematen digu:

Gaur egun pentsiodunak gara, atzo langile kotizatzaileak izan ginen, eta erroldatu gabeko langileak izaten jarraitzen ba dugu ere, eduki sozial eta ekonomiko handiko lana egiten jarraitzen dugu, aitite-amama-aitona-amonak biloben arretan eta zaintzan, hala nola, batez ere emakumeok, etxeko lanetan; Gobernuz Kanpoko Erakundeen jardueran, gizarte-kohesioko agente gisa, eta hainbat erakunde eta jarduera kultural eta humanitarioetan.

Gure aldarrikapenen aldeko borroka, orain pandemia gainditzeko borroka baldintzatuta, gure memoriara ekarri digu bagenekiena, alegia, bizirik irauteko borrokatzea ez dela inoiz Langile Mugimenduarentzat ezezaguna izan. Historian atzera begiratzen badugu, ikusiko dugu beti aritu garela langileen bizi-baldintzak hobetzeko borrokan: lantoki barruko eta kanpoko osasunaren aldeko borroka, soldata duinen aldeko borroka, lanaldi egokien aldekoa.... biziraupenaren aldeko borroka horren osagai dira.

Langileen borrokek Osasun-Sistema Publiko eta Unibertsalak eraiki dituzte, eta Pentsio-Sistema Publikoak indartu dituzte. Horregatik, guk, egungo eta etorkizuneko Pentsio Publiko duinen alde borrokatzen dugunok, ikusten dugu gure aldarrikapenetako bi: gutxieneko 1.080€ko pentsioa eta hileko 1.200€ko lanbide arteko gutxieneko soldata, osatu eta uztartu egiten direla **maiatzaren 1**arekin eta halaber gure Pentsiodunen Mugimendua, gaur egungo langile eta pentsiodunekin.

Konfinatuta gaude, baina ez gaude entzunarazteko ezinduak; ezin dugu onartu osasun-krisia aprobetxatuz, betikoak beren arazoak konpontzen saiatzea, baliabide publikoen eta gainerakoentzako austeritate-neurrien kontura. Gaur egun, lehentasuna pertsonak erreskatatzea da, bizi-baldintza duinak izan ditzaten.

Azkenik, langile mugimenduaren nazioarteko egun hau dela eta, adierazi nahi dugu gure atsekabea, gaur bereziki, infekzioaren larritasunaren ondorioz eta prebentzio-baliabideak ez edukitzeagatik hildako osasun-langileengatik. Horrela egin genuen joan den 28an, Lan-Istripuen eta Lanbide-Gaixotasunen ondorioz hildakoak gogorarazten genituen egunean.

Maiatza Lehenak batzen gaitu